

1.4.1. Bizikidetzeta-plana prestatzea eta garatzea, eta bizikidetzaren batzordea/behakokia abian jartzea, harreman positiboetan oinarritutako bizikidetzaren klima eta kultura lortzeko.

1.4.2. Hezkuntzari eta prebentzioari lehentasuna ematea, zigorraren aurretik; ikastetxeko eta ikasgelako araudiaren garapena, eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak hartzea, indarrean dagoen araudiaren arabera.

1.4.3. Gatazkei ikuspegi eraikitzailetik ekitea. Bitartekotzaren, adiskidetzaren eta ordainaren garapena gatazkak ebazteko.

1. BIZIKIDETZA PLANA (DOKUMENTUEN ANALISIA ETA ELKARRIZKETAK)

- Bizikidetzeta-plana diseinatzea, honako alderdi hauek aintzat hartuta:
 - ✓ Norberaren eskubideak gauzatzea eta besterenak errespetatzea, bizikidetzaren funtsezko oinarri gisa (berdinen artean, generoa, kulturartekotasuna, eta irakasleen, irakasle ez diren langileen eta ikasleen arteko harremanak). Ikastetxeko eta ikasgelako arauetan zehaztuko dira.
 - ✓ Gatazkak modu baketsuan ebazteko prozedurak.
 - ✓ Bizikidetzarako hezkuntza-konpromisoak nor bere gain hartzeko gidalerroak.
 - ✓ Bizikidetzaren behakokia antolatzekeo neurriak.
 - ✓ Prestaketan parte hartu duten sektoreak.
- Bizikidetzeta-plana garatzea
 - ✓ Bizikidetzeta-plana eta tratu txarren kasuetarako protokoloa hedatzea, eta sektore guztiek benetan ezagutzea.
 - ✓ Irakasle guztien tutoretza-ekintzaren bidez prebentzioa lantzea, autonomia pertsonal, sozial eta herritarra gauzatzeko gaitasunen garapenaren bidez.
 - ✓ Bizikidetzarako desegokiak, aurkakoak edo oso kaltegarriak diren jokabideak zuzentzeko hezkuntza-neurriak ezartzea.
 - ✓ Zuzendaritzaren esku-hartzea bizikidetzarako aurkakoak edo oso kaltegarriak diren jokabideak zuzentzeko hezkuntza-neurriak aplikatzeko.
 - ✓ Jokabideak zuzentzeko bide alternatiboen aplikazioa bultzatzea (adiskidetzeta, ordaina, familia-eremuan zuzentzea eta hezkuntza-konpromisoak).
- Bizikidetzaren behakokia
 - ✓ Sektoreen parte-hartzea.
 - ✓ Eginkizunen definizioa (sentsibilizazioa, detekzioa, beste zerbitzu batzuetara bideratzea eta proposamenak egitea).
 - ✓ Antolaketa (lantaldeak, egutegia, jorrazteko gaiak).
 - ✓ Esku-hartzeen erregistroa.

2. IRAKASLEEN, IRAKASLE EZ DIREN LANGILEEN ETA FAMILIEN PRESTAKUNTZA (DOKUMENTUEN ANALISIA ETA ELKARRIZKETAK)

- Prestakuntza-premiak hautematea eta lehentasuna ematea
 - ✓ Barne-prestakuntza (komunitate guztientzat, edo sektore jakin batentzat edota lantaldeentzat).
 - ✓ Kanpo-prestakuntza (pertsonei zuzentzeko helburu dituenak).
 - ✓ Ikasitakoaren hedapena.

3. JARDUNBIDE EGOKIAK (DOKUMENTUEN ANALISIA ETA ZUZENDARITZAREKIN ELKARRIZKETA)

- Jardunbide egokiak partekatzen eta ikasten ditu:
 - ✓ Ikastetxe edo erakundeak bisitatzen ditu.
 - ✓ Prestakuntza-jardueretan parte hartzen du.
 - ✓ Gai horri buruzko egungo esperientziak ikertzen ditu eta horiei buruzko informazioa jasotzen du.
 - ✓ Artikuluak idazten ditu, ponentziak egiten ditu, eta abar.